E U S K A R A Z

GIPUZKOAKO SUPERBETERANOEN TXAPELKETA 2026

T X A P E L K E T A R E N O I N A R R I A K

1. Txapelketa 2026ko urriaren 4, 18 eta 25ean, eta azaroaren 1, 8, 15 eta 22an jokatuko da.
2. Txapelketan GXFn federazio-lizentzia indarrean duten 1962an edo lehenago jaiotako jokalari guztiek hartu ahal izango dute parte.
3. 9 jokalari baino gutxiagok jokatzen badute, txapelketa liga sistemaz (round robin) jokatuko da; 9 eta 15 arteko jokalarik jokatzen badute, suitzar sistemaz 5 errondatan; eta 15 jokalari baino gehiagok jokatzen badute, suitzar sistemaz 7 errondatan.
4. Txapelketaren joko-erritmoari dagozkion FIDEren Xake Legeak aplikatuko dira.
5. Telefono mugikorrei eta gailu elektronikoei buruz FIDEk indarrean duen araudia aplikatuko da. Jokalariei gomendatzen zaie epaileari jakinaraztea non uzten duten beren telefono mugikorra; itzalita eta soinean eraman gabe egon beharko du, eta ez dute ukituko beren partida amaitu eta joko-aretotik atera arte.
6. Gipuzkoako Banakako Txapelketen Araudia, txapelketa hasten den egunean indarrean dagoena, osorik aplikatuko da.
7. Partidak antolatzeko baimena ematen zaion klubean jokatuko dira. Erronden ordutegia aski aurretiaz jakinaraziko da.
8. Joko-erritmoa 90 minutukoa izango da jokalari bakoitzarentzat, jokaldi bakoitzeko 30 segundoko gehikuntzarekin.
9. Izen-emateak GXFren Idazkaritzaren bidez jasoko dira, deialdiarekin batera argitaratuko den formulario ofizialaren bitartez. Izena emateko epea 2026ko irailaren 14an irekiko da, eta 2026ko urriaren 1ean 15:00etan itxiko da.
10. Erlojuak partidaren hasierarako adierazitako orduan abiaraziko dira. Ordu ofizial horretatik ordu erdi igarota taularen aurrean agertu ez den jokalariak partida galduko du, agertu ez izanagatik.
11. Txapelketa suitzar sistemaz jokatzen bada, bi aldiz ez agertzeak, justifikatuta egon ala ez, txapelketatik kanporatzea ekarriko du. Epailearen esku egongo da lehen errondara agertzen ez den jokalaria kanporatzea. Ez da hutsegitetzat hartuko jokalariak epaileari ez dela agertuko jakinarazten badio, erronda argitaratu aurretik.
12. Txapelketa liga sistemaz (round robin) jokatzen bada, bi aldiz ez agertzeak, justifikatuta egon ala ez, txapelketatik kanporatzea ekarriko du. Jokalari batek txapelketako partiden erdia baino gutxiago jokatzen baditu, bere emaitza guztiak baliogabetuko dira sailkapena egiteko ondorioetarako.
13. Jokalariren batek partidaren bat aurreratzea eskatzen badu, arau hauek beteko dira:
    a) Jokalari bakoitzak partida bakar bat aurreratzeko eskaera egin ahal izango du txapelketa osoan.

b) Adierazitako egunean bere partida jokatu ezin duenak partida aurreratzea aukeratu ahal izango du; horretarako, txapelketako epaile nagusiari jakinaraziko dio, eta hark aurrerapen hori baimendu beharko du.

c) Partida aurreratzen duen jokalariak aurkariarekin ados jarri behar du partida non, zein egunetan eta zer ordutan jokatuko den finkatzeko. Txapelketako epaile nagusiari jakinaraziko dio, eta emaitza helarazteaz arduratuko da, beranduenez ere partida aurreratu gabe jokatu beharko litzatekeen egunean eta orduan; hala egingo ez balu, partida galdutzat emango zaio, agertu ez izanagatik.

d) Partida aurreratu nahi duen jokalaria bere aurkariarekin ados jartzen ez bada, epaile nagusiak ez du aurrerapena baimenduko, eta partida horretarako adierazitako egunean eta orduan jokatuko da.

e) Azken errondan ez da partidarik aurreratzea baimenduko, guztiz justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik. Epaile nagusiak erabaki beharko du aurrerapen hori baimentzen duen ala ez.

14. Txapelketa liga sistemaz (round robin) jokatzen bada, epaile nagusiak baimena eman dezake partida bat aurreikusitako egunaren ondoren jokatzeko, betiere bi jokalariak ados badaude eta txapelketaren garapena eragozten ez badu; inola ere ezin izango da azken errondan egin.

15. Ezein jokalari ezin izango da joko-aretotik atera bere partida jokoan dagoen bitartean, epaile-taldeko kideren baten baimenik gabe. Kide horrek erabakiko du baimena ematen duen ala ez, errondaren egoera orokorra eta emandako gainerako irteera-baimenak baloratu ondoren. Debekatuta dago jokalariak analisi-aretora sartzea beren partidak jokoan dauden bitartean.

16. Txapelketa suitzar sistemaz jokatzen bada, puntuetan berdinketa gertatuz gero, berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren:

    a) Buchholz, emaitzarik txarrena kenduta.

    b) Buchholz osoa.

    c) Sonneborn-Berger.

    d) Garaipen kopurua.

    e) Zozketa.

    Buchholz kalkulatzeko, partida jokatu gabe geratu bada, erabilitako programak dakarren zuzenketaren bat aplikatuko da, epailearen irizpidearen arabera.

17. Txapelketa liga sistemaz (round robin) jokatzen bada, puntuetan berdinketa gertatuz gero, berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren:

    a) Sonneborn-Berger.

    b) Berdinduta dauden jokalarien arteko aurrez aurreko emaitza.

    c) Garaipen kopurua (agertu ez izanagatik irabazitakoak barne).

    d) Txapelketan izandako pieza beltzen kopurua (jokatu gabeko partidak barne).

    e) Berdinduta dauden jokalarien arteko pieza beltzen kopurua.

    f) Zozketa.

    Berdinketa hausteko sistemaren bat aplikatzearen ondorioz berdinduta dauden jokalarien kopurua murrizten bada, sistema horiek hasieratik aplikatuko zaizkie geratzen direnei.

18. GXFk txapelketetako epaileak izendatuko eta ordainduko ditu, arrazoituta hala egin behar duela uste duen kasuetan.
19. Txapelketa FIDEren Elorako baliagarria izango da.
20. Lehen hiru sailkatuek garaikurra jasoko dute.
21. Txapelketako parte-hartzaileek baimena ematen dute beren datu pertsonalak antolakuntzak egokitzat jotzen dituen komunikabideetan argitaratzeko, ekitaldiaren beharrezko zabalkundea egiteko (emaitzak, sailkapenak, partidak, argazkiak, eta abar).
22. Txapelketan parte hartzeak oinarri hauek eta gainerako araudi aplikagarria onartzea eta betetzea dakar.
23. Edozein zalantza edo kontsultarako, parte-hartzaileek GXFren Idazkaritzara jo dezakete helbide elektroniko honen bidez: inscripciones@fgajedrez.org.

Gipuzkoako Xake Federazioaren Lehiaketa Batzordea

EN CASTELLANO

CAMPEONATO DE SÚPER VETERANOS DE GIPUZKOA 2026

BASES DEL TORNEO

1. El Campeonato se jugará los días 4, 18 y 25 de octubre y 1, 8, 15 y 22 de noviembre de 2026.
2. Podrán participar en él todas las jugadoras y jugadores con licencia federativa en vigor en la FGA que hayan nacido en el año 1962 o en años anteriores.
3. Si juegan menos de 9 participantes el torneo se disputará por sistema de liga (round robin); si juegan entre 9 y 15 participantes, por sistema suizo a 5 rondas; y si juegan más de 15 participantes, por sistema suizo a 7 rondas.
4. Se aplicarán las Leyes del Ajedrez de la FIDE correspondientes al ritmo de juego del campeonato.
5. Será de aplicación la normativa FIDE vigente sobre teléfonos móviles y dispositivos electrónicos. Se recomienda a las jugadoras y jugadores comunicar al árbitro o la árbitra dónde depositan su teléfono móvil, que deberá permanecer apagado y no podrá llevarse encima, sin ser manipulado hasta abandonar la sala de juego una vez finalizada su partida.
6. Será de aplicación íntegra el Reglamento de los Campeonatos Individuales de Gipuzkoa vigente el día de comienzo del torneo.
7. Las partidas se celebrarán en el club al que se autorice su organización. El horario de las rondas se notificará con suficiente antelación.
8. El ritmo de juego será de 90 minutos de crono individual con un incremento de 30 segundos por jugada.
9. Las inscripciones se recogerán a través de la Secretaría de la FGA, mediante el formulario oficial que se publicará junto con la convocatoria. El plazo de inscripción se abrirá el 14 de septiembre y se cerrará el 1 de octubre de 2026 a las 15:00 horas.
10. Los relojes se pondrán en marcha a la hora indicada para el comienzo de la partida; quien, media hora después de dicho horario oficial, no haya comparecido ante el tablero perderá la partida por incomparecencia.
11. Si el torneo se disputa por sistema suizo, dos incomparecencias, justificadas o no, supondrán la eliminación del torneo. Será potestativo del árbitro o la árbitra eliminar a quien falte a la primera ronda. No se considerará incomparecencia cuando la persona participante avise de ello al árbitro o la árbitra antes de que se publique la ronda.
12. Si el torneo se disputa por sistema de liga (round robin), dos incomparecencias, justificadas o no, supondrán la eliminación del torneo. Si un jugador o jugadora juega menos de la mitad de las partidas del torneo serán anulados todos sus resultados a efectos de clasificación.
13. En el caso de que alguna persona participante solicite adelantar alguna partida se seguirán las siguientes reglas:
    a) Cada jugador o jugadora podrá solicitar el adelantamiento de una única partida a lo largo del campeonato.

b) Quien no pueda jugar su partida en la fecha señalada podrá optar por adelantarla; para ello lo notificará al árbitro o la árbitra principal del torneo, quien deberá autorizar dicho adelantamiento.

c) Quien adelanta la partida tiene la obligación de ponerse de acuerdo con su rival para fijar la fecha, la hora y el lugar en que se jugará, lo notificará al árbitro o la árbitra principal del torneo y se encargará de facilitar el resultado a más tardar para la hora y día en que la partida se debería haber jugado sin adelantamiento; si no lo hiciese se le dará la partida perdida por incomparecencia.

d) Si quien desea adelantar la partida no se pone de acuerdo con su rival, el árbitro o la árbitra principal no autorizará el adelantamiento y la partida se jugará en el día y la hora señalados.

e) No se autorizará el adelantamiento de partidas en la última ronda, salvo casos de fuerza mayor totalmente justificados. El árbitro o la árbitra principal deberá dictaminar si autoriza dicho adelantamiento o no.

14. Si el torneo se disputa por sistema de liga (round robin), el árbitro o la árbitra principal podrá autorizar que se juegue una partida después del día previsto, siempre que estén de acuerdo ambas partes y no perturbe el desarrollo del torneo; en ningún caso se podrá hacer en la última ronda.

15. Ninguna persona participante podrá abandonar la sala de juego mientras esté en juego su partida si no es con el consentimiento de algún miembro del equipo arbitral, que decidirá, tras valorar la situación global de la ronda u otros permisos de salida, si lo concede o no. Queda prohibido a las jugadoras y jugadores el acceso a la sala de análisis mientras sus partidas estén en curso.

16. Si el torneo se disputa por sistema suizo, en caso de empate a puntos se aplicarán sucesivamente los siguientes sistemas de desempate:

    a) Buchholz descontando el peor resultado.

    b) Buchholz total.

    c) Sonneborn-Berger.

    d) Número de victorias.

    e) Sorteo.

    Para calcular el Buchholz, en caso de partida no jugada, se aplicará la corrección que efectúe el programa utilizado, a criterio del árbitro o la árbitra.

17. Si el torneo se disputa por sistema de liga (round robin), en caso de empate a puntos se aplicarán sucesivamente los siguientes sistemas de desempate:

    a) Sonneborn-Berger.

    b) Resultado particular entre quienes hayan empatado.

    c) Número de victorias (incluyendo las ganadas por incomparecencia).

    d) Número de piezas negras en el torneo (incluyendo las partidas no jugadas).

    e) Número de piezas negras entre quienes hayan empatado.

    f) Sorteo.

    Si como resultado de la aplicación de un sistema de desempate disminuye el número de personas empatadas, se vuelven a aplicar entre ellas los sistemas de desempate desde el principio.

18. La FGA designará y pagará a los árbitros y árbitras de los campeonatos a los que considere, razonadamente, que debe designar y pagar.
19. El torneo será valedero para el cómputo de Elo FIDE.
20. Habrá trofeos para las tres primeras personas clasificadas.
21. Las personas participantes en el torneo autorizan la publicación de sus datos personales en los medios de comunicación que la organización considere oportunos para la necesaria difusión del evento (resultados, clasificaciones, partidas, fotografías, etc.).
22. La participación en el torneo implica la aceptación y cumplimiento de las presentes bases y demás reglamentación aplicable.
23. Para cualquier duda o consulta, las personas participantes podrán dirigirse a la Secretaría de la FGA a través del correo electrónico: inscripciones@fgajedrez.org.

Comité de Competición de la Federación Guipuzcoana de Ajedrez